

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Gazteriaren arloan dirulaguntzak emateko 2025eko oinarriak onartzea

Udal honek, 2025eko martxoaren 7an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, 2025.urterako gazteriaren arloko dirulaguntzak emateko oinarriak onartu zituen.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aipatutako oinarriak argitaratzen dira.

Gazteria arloan diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak 2025

Deialdi honen xedea lehiaketa bidez diru-laguntzak ematea da, Alegria-Dulantziko gazteen kolektiboa dinamizatzeko xedez eta udalaren jarduera programa osatze aldera, betiere honela gauzatuz gero:

1. Banakako diru-laguntzak, 2025. urtean egindako jardueretan parte hartzeagatik sortutako gastuak ordaintzeko.

2. 2025. urtean diru-laguntzak urteko aldi desberdinetarako ezarriko dira:

- Urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitarteko aldia.
- Maiatzaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldia.
- Urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldia.

Deialdia ondoko oinarriek arautuko dute: oinarri hauek eta dagozkion udal-ordenantzek, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, eta Alegria-Dulantziko Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoan ezarritakoak.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen kudeaketa ondoko printzipioen arabera egingo da: publikitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza; baita beste hauen arabera ere: eraginkortasuna zehaztutako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

1. artikulua. Deialdiaren xedea

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen xedea Alegria-Dulantziko gazteen kolektiboaren dinamizazioa, 14 eta 30 urte bitartekoa, sustatzea izango da: banakako diru-laguntzak gazteen aisialdiko jardueretan parte hartzeagatiko gastuak ordaintzeko.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak:

– Edozein motatako kirol-jarduerak (ikastaroak; tailerrak; naturan egiten diren jarduerak, hala nola eskia, eskalada, puentinga,...). Udalak eskaintzen dituen urteko jarduerak ez dira finantzatuko.

– Edozein eratako kultura-jarduerak (ikastaroak; tailerrak; museoetarako bisitak)

– Aisialdiko jarduera hutsak, hala nola gaikako parkeak, interpretazio-zentroak, akuarioak, etab.

– Kontzertuetara joatea (sarrera bakarrik).

– Euskara sustatzeko ekitaldietara joatea, baldin eta sarrera-kuota badute.

Ondokoak ez dira diruz lagunduko:

- Alegria-Dulantziko Udalak antolatzen eta garatzen dituen jardueretan parte hartzea, dagoeneko laguntza inplizituak baitaramatzate.
- Udalerriko elkarte eta klubek antolatzen dituzten jardueretan parte hartzea.
- Instalazioen alokairua (jarduerari dagozkionak izan ezik, adibidez, eskiatzeko forfait-ak, horiek diruz lagunduko baitira).
- Materialaren alokairua (izotzeko patinajerako eta eskietarako patinak izan ezik).
- Zinemarako, antzerkirako sarrerak.
- Joan-etorriek eragindako gastuak.
- Otorduek eragindako gastuak.
- Ostatuek eragindako gastuak.
- Garatu beharreko jardueraren berezko gastua ez den beste edozein gastu.

2. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunak

1. Ondoko pertsonak eta erakundeak izan daitezke diru-laguntzen onuradun:

- Dulantziko erroldatuan 14 eta 30 urte bitartean dituzten gazteak.

2. Pertsona onuradunen betebeharrak:

- Dulantziko udalerrian erroldatuta egotea jarduera egiten den urtean eta, beraz, jardueran parte hartzeko unean.
- Jardueran parte hartzeko unean 14 urte beteta izatea, eta une horretan bertan 30 urte baino gehiago ez izatea.
- Pertsona bakoitzak 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra egiten dituen jarduerak adina laguntza eskatu ahal izango ditu.
- Egun bat baino gehiago irauten duten jardueretarako, jardueraren kostuak bakarrik lagunduko dira diruz, eta izena eman duen pertsonaren kargura geratuko dira ostatua eta mantenua.

3. Ondokoak ez dira onuradun izango:

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3. artikuluetan jasotako egoeraren batean daudenak.

3. artikulua. Aurrekontu-zuzkidura

Hau da 2025. urterako aurrekontu-zuzkidura: 3.000,00 euro, 337.226.062 aurrekontu-partidatik, honela banakatuta:

- Urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitarteko aldia: 1100,00 euro.
- Maiatzaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldia: 1100,00 euro.
- Urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldia: 800,00 euro.

Diru-laguntzak borondatezkoak dira, eta alde zuzenetik jaso izanak ez du berekin ekarriko berriro jasotzeko eskubidea.

Udalaren diru-laguntzak bateragarriak izango dira eskatzaileek eskura ditzaketen beste laguntza batzuekin; hala ere, udalaren diru-laguntzaren zenbatekoak, beste erakunde batzuen diru-laguntzekin batera zein bakarrik, ezin izango du gainditu buruturiko jardueraren defizita.

4. artikulua. Zenbatekoa

Zenbatekoak zehaztuko dira artikulua honetan jasotako diruz lagun daitezkeen jardueretarako ezarritako mugen arabera, betiere kontuan izanik ez dela diruz lagunduko kasu bakoitzean diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 30 baino gehiago.

Kasu guztietan, eskaeren kopurua eta eskatutako diru-laguntzen zenbatekoa direla-eta diru-laguntzen gehieneko ehunekoak murriztu beharko balira, aurrekontu-partidara doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko litzaieke jarduera guztiei.

Aldi bakoitzaren amaieran partida osoa gaitu ez bada, hurrengo aldiari esleitu ahal izango zaio.

Gazteen aisialdiko jardueretan parte hartzeagatik gastuak ordaintzeko banakako diru-laguntzak:

- Egun bateko jardueretarako kostuaren ehuneko 30 arte, 30,00 euro gehienez.
- Kostuaren ehuneko 30 arte, egun bat baino gehiagoko jardueretarako, gehienez 75,00 euro.
- Eskatzaile eta denboraldi bakoitzeko diru-laguntza, guztira, 105,00 eurokoa izango da gehienez.

Hainbanaketa izanez gero, eskatzaile bakoitzeko zenbatekoak ez du gaindituko erakunde eskatzaile bakoitzeko aurrekontu-partidaren ehuneko 25, kontuan hartu gabe zenbat programa edo jardueretarako eskatzen den diru-laguntza.

5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek jarraian zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Eskabide ofiziala, egindako jardueraren azalpen laburra barne.
- Eskatzailearen NANaren/AIZaren fotokopia.
- Ahal bada, jardueraren antolatzaileak emandako egiaztagiria, parte hartzen duen pertsonaren izen-abizenak adierazten.
- Jatorrizko faktura. Zenbatekoak 60 eurotik beherakoak badira, gastua frogatzen duen beste edozein agiri.
- Zinpeko adierazpena, xede bererako edozein administrazio, erakunde edo entitate publikoren diru-laguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso den edo ez adierazita. Beste diru-laguntzaren bat jaso bada, adierazi beharko da zenbat jaso den eta zein administrazio eman duen; halaber, aipatu datuen egitasuna bermatzen duen agiria aurkeztu beharko da (I. Eraskina).
- Zinpeko aitortpena, jardueran parte hartu duen pertsona eskabidea egin duena dela aitortuz.
- Fakturen zenbatekoak 60,00 eurotik gorakoak badira, baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Fakturaren egilearen eta hartzailearen izena edo sozietatearen izena eta NA edo IFZ.
 - Hornitzailearen zigilua edo sinadura.
 - Fakturaren azalpena.
 - Prezioa eta BEZa (barne edo gabe adierazita) eta PFEZren atxikipena, hala badagokio.
- 200,00 euroko baino gehiagoko gastuei dagozkien aurkeztutako fakturen ordainketaren egiaztagiriak.

6. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Hau izango da 2025ean aurkezteko epea:

- Urtarrilaren 1etik apririlaren 30era bitarteko aldia

2025eko maiatzaren 21era arte. Ez da eskaerarik izapidetuko epe horretatik kanpo. Agiriak Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira edo Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura 3/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako edozein bideren arabera.

Eskaerak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari hamar egun balioduneko epean zuzen dezan eskatuko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

– Maiatzaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldia

2025eko urriaren 22ra arte. Ez da eskaerarik izapidetuko epe horretatik kanpo. Agiriak Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira edo Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura 3/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako edozein bideren arabera.

Eskaerak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari hamar egun balioduneko epean zuzen dezan eskatuko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

– Urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldia

2026ko urtarrilaren 21era arte. Ez da eskaerarik izapidetuko epe horretatik kanpo. Agiriak Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira edo Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura 3/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako edozein bideren arabera.

Eskaerak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari hamar egun balioduneko epean zuzen dezan eskatuko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

7. artikulua. Esleipenerako eta ebazpenerako prozedura

Instrukzio-organoaren buru arlo bakoitzeko Zinegotzi ordezkaria izango da, eta Alegria-Du-lantziko Udaleko gizarte, kultura, eta euskara-arloetan diharduten teknikariek osatuko dute, zeinak ofizios egingo dituzten ebazpen-proposamena idazteko beharrezkotzat jotzen diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeke jarduera guztiak.

Behin eskaerak ebaluatuta, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo da, eta dagokion batzorde informatzailean aurkeztuko da, irizpena eman dezan; ondoren, interesdunei jakinaraziko zaie, hamar egun balioduneko epean egoki deritzotena alega dezaten.

Egindako alegazioak ebatzita, instrukzio-organoak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta Osoko Bilkurako gaiak prestatzen dituen batzordeari bidaliko zaio. Batzorde horrek aldeko irizpena eman ostean, gobernu-batzordeak ebatziko du diru-laguntzak eman ala ez, eta interesdunei behin betiko ebazpenaren berri emango zaie.

Ebazpenak administrazio-bidea agortuko du; bertan azalduko da haren aurka zer errekurtsio jar daitekeen, eta haren berri emango da Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskaeren ebazpena, gehienez ere, 45 eguneko epean egingo da, eskaerak aurkeztu ahal izateko azken egunetik aurrera (6. artikuluan xedatzen da egun hori). Epe hori amaitu eta berarizko ebazpenik eman ez bada, aipatu eskaera gaitzetsizat joko da.

Esleituriko diru-laguntzak udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko dira, denek ezagun ditzaten, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.

8. artikulua. Onuradunen betebeharrak

– Diru-laguntza ematen duen organoaren aurrean justifikatzea betekizunak eta baldintzak betetzen direla, jarduera gauzatu egin dela eta diru-laguntza emateko edo jasotzeko arrazoi izan den helburua bete egin dela.

– Diru-laguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen-jarduketa guztiak onartzea, baita kontrol-organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak zaintzeko eta egiaztatzeke egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, haien jarduketa gauzatzeko eskatzen zaizkien informazio eta agiri guztiak eman beharko dira, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutakoak barne.

– Diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

– Diru-laguntza ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Alegria-Dulantziko Udala izapidetzen hasitako itzulketa edo zehapen prozesu guztiak bukatuta egotea.

9. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

Interesdunei behin betiko ebazpen-proposamenaren berri emandakoan, 30 eguneko epean egingo da ordainketa.

Onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak diru-laguntza baliogabetzea ekar dezake. Kasu horretan, emandako diru-laguntza itzultzeko prozedurari ekingo zaio, Alegria-Dulantziko Udalaren diru-laguntzen ordenantzan araututakoaren arabera.

10. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan aurreikusi ez den orori dagokionez, Toki Araubidearen araudian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, diru-laguntzen udal-ordenantzan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoa beteko da.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, zuzenean Gasteizko epaitegietan, bi hileko epean ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko zaio, aukeran, deialdia onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, eskatzaileei jakinarazi zaie udal honek tratatuko dituela eskabidea eta laguntzak emateko behar diren gainerako agiriak aurkeztuta ematen diren datu pertsonalak, laguntzak emateko prozesua kudeatzeko eta oinarri hauetan adierazitako betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko.

Alegria-Dulantzin, 2025eko martxoaren 10ean

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA